

# noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

## "Jende guztia da idazteko gai, parte handi batean denok egiten baitugu"

irati jimenez idazleak 'Aiztoa eta Arkatza' liburua aurkeztu du

Hautatutako autore batzuk sortze prozesuaren inguruan emandako aholkuak bildu ditu bere lan berrian

marta esnaola - Martes, 8 de Octubre de 2013 - Actualizado a las 06:08h

irati jimenez Idazlea

Donostia. Garai eta herrialde desberdinetako egile askok idatzi dute urteetan zehar idazte prozesuari buruz, beraien ustetan dauden sekretuak azaleratu. Irati Jimenezek gauza bera egin ordez, idazteaz, eta gehienbat, ondo idazteaz, hitz egiteko beste formula bat aurkitu du *Aiztoa eta arkatza* izeneko bere liburu berrian. Bertan, bere ustez esanguratsuak diren aholkuak bildu ditu sortze prozesu horren tripak ondo ezagutu nahi dituenarentzat.

Antton Olariaga marrazkilariak ilustratu du liburua eta Harkaitz Cano idazlea izan da hitzaurrea egiteaz arduratu dena. Editorea, berriz, Mikel Soto izan da, eta Txalapartak argitaratu du liburua, Amaier bildumaren barruan. Irailaren 1etik dago salgai 18 euroren truke.

154 orrialdetan zehar garai eta munduko leku ezberdinetan lanean aritu diren idazleen hi-tzekin ondo idaztearen giltza azaltzen saiatu da Jimenez. Idazle bakoitzak emandako aholkuak autore horren biografia batek aurkeztu ditu. Horren ondoren datorrenak ez du beti forma berdina. "Kasu batzuetan beraien autobiografiaren zati bat da, beste batzuetan, dekalogo bat, adibidez", adierazi du idazle mundakatarak.

"Nire aholku bakarra: norberak aukeratu behar du zein aholkuri jarraitu eta zeini ez"

Hala ere, ez du dena besteen esku utzi liburu honetan. "Nik aholku bakarra ematen dut: norberak aukeratu behar duela zein aholkuri jarraitu eta zeini ez", dio. Idazlearen ustez, aholku asko en-tzuten dira eta beraien artean kontraesan egiten dira askotan. Beraz, bakoitzak erabaki behar du zeini egin kasu. Hau hobeto ulertarazteko, Jimenezek Charlotte Brontëren anekdota bat kontatu du liburuan. "Idazteko gogoa piztu zi-tzaionean, lagun bati deitu zion aholku eske. Honek emakumeek ezin zutela idazleak izan esan zion. Agerikoa da ez ziola kasurik egin", dio barrez.

guztientzako liburua *Aiztoa eta arkatza* ez da idazleei bakarrik zuzenduta dagoen liburu bat Jimenezen ustetan, edonork irakur dezakeen bat baizik. Pertsona gehienek bere egunerokotasunean idatzi behar dutela dio, batzuk horretan lan egiten dutelako eta beste batzuk email bat idatzi behar dutelako edo beste edozein arrazoirengatik. "Idazten dugunak idazten ez dutenak baino gehiago gara", azaldu du idazle bizkaitarrak.

Liburuak "sortze prozesuaren sukaldea" erakusten duela esaten du, eta inspirazioaren gaia askotan ukitzen den zerbait dela gehitu du. "Ez dago beste munduko magia berezirik hemen, beste lan bat gehiago da, disziplina bat", dio Jimenezek, edozeinek idazlea izatea daukala pentsatzen baitu. "Denok gara idazteko gai, parte handi batean denok egiten baitugu", adierazi du.

Lan honetan ere, garrantzitsuena idaztea maitatzea da Jimenezen ustez, hori egitea maite duen edonork aurkituko du beharrezko magia hori. Bilaketa horretan, bakoitzak ikusi beharko du zein aholkuri jarraitu.

Cargando comentarios...



## Haz tu comentario

### Condiciones de uso

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Escribe tu comentario

introduce tu comentario

Comentarios Número de caracteres (500/500)

[Soy usuario registrado](#)

Introduce tus datos.

[Quiero registrarme](#). Sólo tardarás un minuto. El comentario se enviará después de registrarte.

Usuario registrado

Correo electrónico



Recordarme la próxima vez

[¿Olvidaste tu contraseña?](#)

Enviar

¡Hecho!



Recibirás un correo electrónico para confirmar tu registro.

Enseguida te devolveremos a la página en la que estabas donde verás tu comentario publicado

Publicidad

- 
- 
- 
- 

• © Diario de Noticias-Edición Digital

- 
- 
- 
-